



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

## 2023KO MARTXOAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta  
Lur Etxeberria Gurrutxaga  
Joxe Mari Iribar Zapirain  
Ainhoa Arrozpide Landa  
Luken Arkarazo Silva  
Oskar Santamaria Pikabea  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Carlos Pérez Fraisoli  
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Kontu-hartzailea:** Gorka Lizarraga Erro.

Ez dira bertaratu: Itziar Basterrika Unanue eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2023ko martxoaren 30ean arratsaldeko 18:07etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

### 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

#### 1.1.- 2023KO URTARRILAREN 26KO OHIKO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek 2023ko urtarrilaren 26ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

## **1.2.- 2023KO OTSAILAREN 23KO OHIKO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek 2023ko otsailaren 23ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

## **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2023KO OTSAILAREN 21ETIK MARTXOAREN 23RA (2023/178-2023/309).**

Alkatetzak 2023ko otsailaren 21etik martxoaren 23ra bitartean (2023/178-2023/309) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA (2023EKLI0001).**

Batzarkideei 2022ko Aurrekontuaren likidazioaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

Kontu-hartzaileak bere txostenak jasotzen duena azaldu du.

Jarraian, Beñat Larrañagak adierazi du eskuartean dituzten datuak zorionez positiboak eta poztutzeko modukoak direla. Titular moduan aipatu du, batetik, 17.400.000 euroko behin betiko aurrekontua izan dutela eskuartean eta, bestetik, iazko ekitaldiaren emaitza positiboa izan dela.

Gastuen azterketatik abiatuta, inbertsioen atala azpimarratu du, 17.400.000 horietatik 5.800.000 inbertsioetara bideratuta egon baitira. Inbertsioetan zehaztu ditu gazteen emantzipazioa, adinartekotasuna bultzatuko duen Txirikorda, zaintza ekosistema berriaren baitan kokatzen dena, herri burujabe bat izateko baliabide propioak erabiltzen jarraitzeko ur filtrazio sistema berria, oinezkoen mugikortasuna hobetzeko asmoz Etxealdiako auzotarrekin batera burututako lanketaren harira San Esteban kalearen irisgarritasuna hobetzea, Pelaiorena auzo ekipamendua zein emakumeen etxea izango denaren proiektuaren egikaritzea, trantsizio ekologikoaren bidean ere urratsak ematen jarraitu dute, etab.

Beñatek zehaztu du inbertsioetara bideratutako 5.800.000 horietatik 521.000 euro Agerreazpiko zubiari lotutako finantziarioa dela, hortaz, nolabait esan dezaketela dio inbertsioetara bideratutako kopuru erreala 5.300.000 izan direla. Beraz, tartean gertatu direnak gertatuta, obra baten esleipena hutsa geratu dela jakinda, edo bestelako faktore batzuk kontuan izanik, inbertsio errealean ia %50a dagoeneko exekutatuta dagoela esan daitekeela dio eta %89,6a bideratuta edo konprometituta dagoela. Ez dutela ahaztu behar dio obra edo egitasmo bakoitzaren atzean azterketa eta prestatze lan sakonak egon direla. Oro har oso emaitza onak izan direla uste du, inolako zalantzarik gabe.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

Sarrerei dagokionez, Beñatek bereziki aipatu du transferentzia arruntetan iaz baino 1.300.000 euro gehiago jaso direla. Bestalde, egunerokotasunean egiten den gestio onaren erakusgarri dela azpimarratu du dirulaguntza deialdi ezberdinetan guztira 1.650.000 euroko diru-sarrerak izan zirela.

Aurrekontu emaitzari dagokionez, 2022ko aurrekontuaren azken emaitza positiboa izan dela adierazi du.

Gerakinei dagokionez, gerakin osoa 6.750.000 eurokoa bada ere, badakitela dio 2.500.000 euro inguru kobragaitza kontsideratzen dela. Horretaz gain 800.000 euro inguru daudela dio finantziario lotura dutenak. Beraz, gerakin erabilgarria 3.000.000 euro ingurukoa izango litzatekeela esan du.

Eskuartean dituztenak datu positiboak direla azpimarratu du Beñatek, proiektu, egitasmo eta hobekuntza asko jarri dituztela martxan. Udalaren oreka ekonomikoa modu osasuntsu batean mantentzea lortu dutela dio, aurreikusi gabeko beharrei zein egitasmo berriei erantzuteko gerakina eskuragarri utziz. Aurreko udal gobernuaren eskutik udala egoera ekonomiko onean topatu zutela esan du eta gaineratu du lasaitasunez esan dezaketela hurrengo udal gobernuari ere udal txukun eta osasuntsua uzten diotela.

Josune Urkolak hitza hartu du eta kontu-hartzailearen txostenak eskuratzea eskatu du.

Kontu-hartzaileak zehaztu du deialdia egiteko idazkaritzara espediente osoa pasa zuela.

Alkateak esan du korreo elektronikoan jaso dutela espediente osoa.

Aurrekoa argituta, Josune Urkolak saldo kobragaitzen inguruan aipatu du urteroko kontuak direla eta oso inporte zaharrak direla, baina aurreko urteko datuetatik hauetara 500.000 eurotan igo dela eta kopuru hori urtebetean asko dela.

Kontu-hartzaileak erantzun dio 2 urtetik gorako zorrak hartzen direla kontuan eta urtebete beranduago beste urtebeteko zorrak gehitu direla. Hala ere, begiratu egin beharko litzatekeela dio zehazki ze zor diren.

Alkateak zehaztu du badaudela zor haundi batzuk badakitenak zeintzuk diren eta horiek kobratzeko, enbargo ez haratago, kudeaketa politiko bat egin beharko dela hainbatekin. Gaineratu du Udala ez dagoela beste alde batetara begira, udalak ez dituela zorrak barkatzen esan du.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

#### **4.- 2023/249, 2023/263 ETA 2023/291 DEKRETUEN BERRI EMATEA (KREDITU ALDAKETAK).**

Batzarkideei kreditu aldaketak onartzen dituzten 2023/249, 2023/263 eta 2023/291 dekretuen berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

Alkateak, Txirikordako prezio berrikuspenari dagokion kreditu txertaketari dagokionez aipatu du deialdia egin zen egun berean, astelehenean, indize berriak argitaratu zirela. Indize berri horiek kontuan hartuta, prezio berrikuspenaren zenbateko berria 136.374,27 euro izango direla adierazi du, gerora egin den txostenean jaso den moduan. Dekretu berri bat egingo dela esan du diferentziagatik eta hurrengo plenoan berri emango dela.

Idazkariak zehaztu du gai-zerrendako 8. puntuan datorrela prezioen ezohiko berrikuspena onartzea eta bertan hasierako kopurua (72.027,44 euro) onartzen dela, baina emendakin moduan kopuru hori zuzendu daitekeela esan du eta zenbateko berriarekin erabakia hartu.

#### **5.- 2023/213 DEKRETUA BERRESTEA (2023/79 AUZIA) (2023IAEA0002).**

Batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek aho batez berretsi dute gai-zerrendan sartzea.

Idazkariak adierazi du alkateak hartutako erabakia berretsi egin behar dela, auzi honetan errekurritu direlako, batetik, alkateak hartutako erabakia eta, bestetik, pleno honek abenduaren 22an hartutako erabakia. Espedientea epe baten barruan bidali behar zenez, erabakia alkatetza dekretuz hartu zela esan du, baina orain plenoak berretsi egin behar duela, errekurritutako jardunetako bat plenoko eskumenekoa baita.

Batzarkideek 2023/2013 dekretua berretsi dute aho batez.

Honela dio berretsitako dekretuak:

**“2023/213 DEKRETUA**

Data: 2023/02/24

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA, Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1.k) artikuluan xedatutakoaren arabera,

**IKUSIRIK**



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

Joseba Xabier Olano Jauregik Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko epaitegian Usurbilgo Udalaren aurkako auzi errekurtsua aurkeztu du, prozedura laburtua 79/2023.

Errekurritutako jarduna izan da: *“Se impugnan, de forma acumulada, las siguientes actuaciones administrativas, atendiendo la interrelación y conexión directa existente entre ambas: 1) Resuelvo Segundo del Decreto de Alcaldía 1142/2022 de 29 de noviembre, y notificado el 30.11.2022, por el que deniega al demandante el abono de la prima de jubilación anticipada y 2) Acuerdo Plenario de 22.12.2022, publicado en el BOG n.º 11 de 17 de enero de 2023, por el que se inaplican las primas por prejubilación voluntaria reguladas en los artículos 92 y 93 del Acuerdo Regulador de las Condiciones de Trabajo del personal del Ayuntamiento de Usurbil.”*

Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko epaitegiak jakinarazpena luzatu dio udal honi, jardunbide honi dagokion espedientea igorri eta bertan parte hartzeko aukera emanaz.

### KONTUAN HARTURIK

Batetik, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 legearen 21.1.k) artikuluan, eta Administrazioarekiko Auzialdiak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 48. eta hurr. artikuluetan xedatutakoa.

Bestetik, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 2. Xedapen Gehigarriaren 1. puntuak xedatutakoa.

### ERABAKI DUT

**LEHENA:** Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko epaitegian izapidetzen ari den Prozedura laburtua 79/2023 auzian parte hartzea, Udal honen interesak defendatuz.

**BIGARRENA:** Jarraian aipatzen diren abokatua eta prokuradorea izendatzea Usurbilgo Udalaren ordezkartzan aritzeko dagokien auzi-organoetan:

- Abokatua: Iñaki Campo Esnaola.
- Prokuradorea: Ainhoa Kintana Martinez.

**HIRUGARRENA:** Kontratu txiki honek eragindako gastua baimentzea eta xedatzea. Gastu hau 1.1200.226.920.00.04 gastu juridikoak partidaren kontura joango da.

**LAUGARRENA:** Erabaki hau jakinaraztea izendaturiko abokatuari eta prokuradoreari.”

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, aho batez berretsi da.

## **6.- IGOGAILUA ETA AUTOBUS GELTOKI BERRIA EGITEKO MATIA SERVICIOS SOCIALES, S.L.U. ENPRESAREN ETA USURBILGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA (2023HITZ0002).**

Alkateak adierazi du Matia Kalezarren eraikitzen ari den zaintza alorreko etxebizitzan auzunearen irisgarritasun unibertsala bermatu ahal izateko egingo diren azpiegiturak gauzatu eta finantzatzeko helburuarekin osatzen dela hitzarmen hau.

Batzarkideek, Hirigintza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.06/2023-0042  
2023-HITZ-0002

Usurbilgo Udalak eta MATIA SERVICIOS SOCIALES, S.L.U. enpresak, N-634 errepidearen oinean autobus-geltoki berri bat egiteko proiektuari dagozkion obrak finantzatzeko eta gauzatzeko, eta altzatze bertikaleko sistema eraikitzeko, Gerontologia-Zentro berriaren kotaraino dagoen desnibela gainditzeko eta, horrela, eskualde-intereseko zentroa behar bezala kudeatzen eta erabiltzen laguntzeko helburuarekin lankidetzahitzarmen bat landu dute.

Izandako harremanetan honako lankidetzahitzarmena adostu dute bi aldeek:

**HITZARMENA, MATIA SERVICIOS SOCIALES, S.L.U.  
ETA USURBILGO UDALAREN ARTEKOA,  
IGOGAILUA ETA AUTOBUS GELTOKI BERRIA  
EGITEKO.**

Usurbilen, 2023ko .....n .....

**BILDURIK**

### **ALDE BATETIK:**

Agurtzane Solaberrieta Mesa andrea, Usurbilgo Udaleko alkate-udalburua den aldetik, Udalbatzak ..... hitzarmen hau sinatzeko ahalmena eman baitzion, berariaz, 2022ko .....ko osoko bilkuraren erabakiak; Aipatu erabakia 1. ERANSKIN gisa doa.

**CONVENIO ENTRE MATIA SERVICIOS  
SOCIALES, S.L.U. Y EL AYUNTAMIENTO DE  
USURBIL, PARA LA EJECUCION DEL ASCENSOR  
Y LA NUEVA PARADA DE AUTOBUSES.**

En Usurbil a ..... de ..... 2023

**REUNIDOS**

### **DE UNA PARTE:**

Doña Agurtzane Solaberrieta Mesa, en su calidad de Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Usurbil, de acuerdo con las atribuciones que tiene conferidas conforme al acuerdo plenario de fecha ..... Se adjunta el convenio como Anexo 1.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

#### ALDE BATETIK:

Gerardo Amunarriz Pérez jauna (MATIA SERVICIOS SOCIALES, S.L.U.), adinez nagusia, NAN zk.:44.553.203H, eta horretarako helbidea: Donostian, Pinos bideak / 35zk.

Matia izenean eta haren ordezkari gisa, 2015ko urriaren 15an, notario Martín Gabarain Astorqui andrearen/jaunaren aurrean eta haren protokolo 1335 zenbakiarekin emandako eskrituraren bitartez.

Bi alderdiek ordezkartzen parte hartzen dute, eman zaizkien ahalmenekin, eta elkarri aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko gaitasuna eta legitimazioa.

#### AZALTZEN DUTE

- I. Matia, mendekotasuna duten pertsonentzako arretaren esparruan, pertsonen arreta ematera bideratutako egoitza-eredu bat bultzatzen ari da, eta eredu hori, «*Housing*» paradigmaren laburbiltzea da, hau da, etxearen edo «*etxean bezala*» kontzeptutik pertsonen beharretara hurbiltzea. Eredu berri hau eredu instituzional tradizionalaren alternatiba eta etxeko arretaren osagarri gisa planteatzen da.
- II. Helburu hori gauzatzeko, Matiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta, Usurbilgo udalerrian Gerontologia Zentro berri bat eraikitzearen aldeko apustua egin du.
- III. MATIAk, Usurbilgo Arau Subsidiarioetako "A.96/97 MIRAVALLE" eremua osatzen duten lursail pribatu guztien jabe den aldetik, hirigintza-plangintzaren egokitzapena bultzatu du, eta, horri esker, ikuspegi berriko Gerontologia Zentroa eraiki ahal izango da hirigintzaren aldetik.
- IV. Usurbilgo Udalak, Matiak Zentro Gerontologiko berriarekin lortu nahi duen helburua erabat partekatzen du eta ezarri nahi den arreta-eredu berria babestu.
- V. Gaur egun, MATIAren bultzadaz, Usurbilgo Udalak plangintzarako eta exekuziorako tresna berri guztiak onartu ditu (*HAPBren aldaketa, UJP, Birpartzelazio*

#### DE OTRA PARTE:

Don Gerardo Amunarriz Pérez (MATIA SERVICIOS SOCIALES, S.L.U.), mayor de edad, con D.N.I. nº44.553.203H y domicilio a estos efectos en Donostia/San Sebastián, Camino de los Pinos, nº 35.

Actúa en nombre y representación de Matia, en virtud del poder otorgado ante el Notario/a Martín Gabarain Astorqui en escritura de fecha 15 de octubre de 2015 nº de protocolo 1335.

Ambas partes intervienen en la representación y con las facultades que les ha sido conferida, reconociéndose mutuamente capacidad y legitimación para suscribir el presente convenio

#### EXPONEN

- I. Que Matia, en el marco de la atención a personas dependientes, está impulsando un modelo residencial enfocado en la atención centrada en la persona y que se sintetiza en el paradigma "*housing*" a través de un acercamiento a las necesidades de las personas desde el concepto casa o "como en casa". Este nuevo modelo se plantea como alternativa al modelo institucional tradicional y como complemento de la atención domiciliaria.
- II. Que con la finalidad de materializar este objetivo, Matia, impulsada por la Diputación Foral de Gipuzkoa, han apostado por la construcción de un nuevo Centro Gerontológico en el municipio de Usurbil.
- III. Que MATIA como propietario de la totalidad de los terrenos privados que integran el Area "A.96/97 MIRAVALLE" de las Normas Subsidiarias de Usurbil, ha impulsado la adecuación del Planeamiento urbanístico que otorgará cobertura urbanística a la construcción del Centro Gerontológico de nueva concepción.
- IV. Que el Ayuntamiento de Usurbil comparte totalmente el objetivo que persigue Matia con el nuevo Centro Gerontológico y apoya el nuevo modelo de atención que se pretende implantar.
- V. Que en la actualidad, por impulso de MATIA, el Ayuntamiento de Usurbil ha aprobado la totalidad de nuevos instrumentos de planeamiento y



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

*Proiektua, Urbanizazio Proiektua*), eta gaur egun, Arau Subsidiarioak aldatzeko espediente bat ari da bultzatzen, Usurbilen zaindutako Berrikuntza eta Bizitoki Zentroaren Proiektu-programa hartuko duen lurzattia antolatzeko irizpide berria jasoz. Programa horren xedea da premian dauden pertsonen ostaturia eskaintzea, betiere, ikuspegi ekosistemiko batekin, eta hasiera-hasieratik beharrei aurre egingo diena, ohiko bizilekutik etxebizitza txikiez osatutako gerontologia zentro batera ahalik eta egokien igarotzea bermatuz.

Eredu hori osatzeko, Eguneko Zentro bat eraikiko da, eta pribatutasun- eta independentzia-eredu hori bermatuko duten gizarte- eta osasun-zerbitzuak eskainiko dira eredu tradizionalaren aurrean. Eredu berri horrek dakarren berrikuntzaz gain, haren garapenak Gipuzkoan 2018-2021 aldian egoitza-plazaren defizit global handia arintzen laguntzen du, 441 plaza, horietatik 191 Buruntzaldean.

VI. Ekipamendu gerontologikoa garapenak eskatzen du, bai egoiliarrentzat, bai bisitarientzat eta abar, irisgarritasun unibertsala behar bezala konpontzea. Hori dela eta, beharrezkoa da N-634 errepidean garraio publikoko geraleku bat izatea ekipamenduaren oinean, eta igoera bertikaleko sistema bat, gainditzeko aipatutako errepidetik (+18,50 metroko kota, gutxi gorabehera) ezarpen-kotaraino, +41 eta +43 bitarteko desnibela, hau da, 22 metroko desnibela.

VII. Onartutako plangintza- eta kudeaketa-tresna guztietan, zentroaren irisgarritasun-proiektua zegoen, bi igogailu eta autobus-geltokia barne. Alde horretatik, Alde horretatik, irisgarritasun-proiektua gerontologikoaren barruan zegoen.

Hala ere, 2019an, irisgarritasun-proiektuaren hazkunde ekonomikoak arriskuan jarri zuen proiektu osoaren bideragarritasuna, eta, beraz, beharrezkotzat jo zen ekipamenduaren eraikuntzari lehentasuna ematea eta, bigarren fasean, irisgarritasun-proiektua gauzatzea.

VIII. Gaur egun, egoera ekonomikoari esker, irisgarritasun unibertsaleko proiektua berriro

ejecución (*Modificación del PEOU, PAU, Proyecto de Reparcelación, Proyecto de Urbanización*) y en la actualidad, está impulsando un expediente de modificación de las Normas Subsidiarias, recogiendo el nuevo criterio de ordenación de la parcela destinada a albergar el programa de Proyecto de Centro de Innovación y Alojamiento con cuidados en Usurbil, destinado a ofrecer alojamientos a las personas necesitadas, siempre con un enfoque ecosistémico que afronte las necesidades desde sus comienzos, garantizando el tránsito más adecuado del domicilio habitual a un centro gerontológico constituido por pequeñas viviendas en donde se reproduce el modo de vida de las personas que las habitan.

Este modelo se completa con la construcción de un Centro de Día, y la oferta de servicios sociales y sanitarios que garanticen este modelo de privacidad e independencia frente al modelo tradicional. Además de la innovación que supone este nuevo modelo, su desarrollo ayuda a paliar el importante déficit global de plazas residenciales en Gipuzkoa en el periodo 2018-2021, 441 plazas, de las que 191 corresponden a Buruntzaldea.

VI. El desarrollo del equipamiento gerontológico exige resolver de forma adecuada la accesibilidad universal, tanto para los propios residentes como para los visitantes, etc..., lo que hace necesario disponer de una parada de transporte público al pie del equipamiento, en la N-634, y un sistema de elevación vertical para salvar el desnivel desde la citada carretera (cota +18,50 m. aproximadamente) hasta la cota de implantación, entre las +41 y la +43, es decir, 22 m. de desnivel.

VII. En la totalidad de los instrumentos de planeamiento y gestión aprobados se incluía el proyecto de accesibilidad del centro, que incorporaba dos ascensores y la parada de autobús. En este sentido, el proyecto de accesibilidad estaba incluido en el centro gerontológico.

Ahora bien, en el año 2019 el incremento económico que conllevaba el proyecto de accesibilidad, ponía en riesgo la viabilidad del proyecto en su conjunto, por lo que se consideró necesario priorizar la construcción del equipamiento, y en una segunda fase, ejecutar el proyecto de accesibilidad.

VIII. En la actualidad, la conjuntura económica ha posibilitado retomar la ejecución del Proyecto de





Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

gauzatzeko aukera dago.

- IX. Bi aldeek uste dute – alde batetik – Proiektua interes publiko eta sozial handikoa dela, eta Usurbilgo eta eskualdeko hauskortasun- edo mendetasun-egoeran dauden pertsonentzako laguntza eta arreta hobetzen laguntzen duela, eta, bestetik, Gerontologia-zentroa behar bezala garatzeko eta erabiltzeko, zentro horretarako irisgarritasuna modu egokian konpondu behar dela, bai egoiliarrentzat bai senide eta bisitarientzat. Gainera, Usurbilgo herritarrentzat, udalerriko irisgarritasuna hobetzea dakar.
- X. PProiektuari N-634 errepidean, ekipamenduaren oinean, garraio publikoko geraleku bat eta igoera bertikaleko sistema bat emateko, aipatutako errepidetik egoitza-zentroaren kotaraino dagoen desnibela gainditzeko, EHAEOK 2022ko abenduaren 29an onetsitako “Usurbilgo berrikuntza gunea eta zaintzadun etxebizitzaren irisgarritasun unibertsalaren proiektua” idatzi da.
- XI. Hitzarmenak Administrazio publikoek zuzenbide publikoko eta pribatuko erakundeekin hartzen dituzten akordioak formalizatzeko ondorio juridikoa duten tresnak dira. Horiek Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengoak arautzen dituzte.
- XII. Azaldutako guztiagatik, alderdiek Hirigintza hau gauzatzeko akordio bat lortu dute, honako klausula hauen arabera:

#### **KLAUSULAK:**

##### **Lehenengoa.- Xedea**

Hitzarmen honen xedea da Matiak eta Usurbilgo Udalak beren gain hartzen dituzten elkarrekiko konpromisoak ezartzea, N-634 errepidearen oinean autobus-geltoki berri bat egiteko proiektuari dagozkion obrak finantzatzeko eta gauzatzeko, eta altxatze bertikaleko sistema eraikitzeko, Gerontologia-Zentro berriaren kotaraino dagoen desnibela gainditzeko eta, horrela, eskualde-intereseko zentroa behar bezala kudeatzen eta erabiltzen laguntzeko.

##### **Bigarrena.- proiektua idaztea eta onartzea**

MATIAK hitzarmen honen xede den proiektua idatzi du, A.96/97 Area urbanizatzeko proiektuaren separata gisa. Urbanizazio proiektua tokiko gobernu-batzarrak 2020ko urtarrilaren 28an hartutako erabakiaren bidez behin

acesibilidad universal.

- IX. Que ambas partes consideran -por un lado- que el Proyecto es de gran interés público y social, y contribuye a mejorar la asistencia y atención a las personas en situación de fragilidad o dependencia de Usurbil y de la comarca y -por otro lado- que para un adecuado desarrollo y uso del Centro Gerontológico exige resolver de forma adecuada la accesibilidad al mismo, tanto para los propios residentes como para los familiares y visitantes. Además, para los propios ciudadanos de Usurbil, conlleva mejorar la accesibilidad en el municipio.
- X. Que con la finalidad de dotar al proyecto de una parada de transporte público al pie del equipamiento, en la N-634 y un sistema de elevación vertical para salvar el desnivel desde la citada carretera hasta la cota del centro residencial, se ha redactado el “Proyecto de accesibilidad universal del centro de innovación y viviendas con cuidados de Usurbil” visado por el COAVN el 29 de diciembre de 2022.
- XI. Los convenios son los instrumentos para formalizar los acuerdos, con efectos jurídicos, que adopten las administraciones públicas con entidades de derecho público y privado, los cuales se rigen por los artículos 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público.
- XII. Por todo lo expuesto, las partes han alcanzado un acuerdo para instrumentalizar en el presente Convenio con sujeción a las siguientes:

#### **CLÁUSULAS**

##### **Primera.- Objeto**

Es objeto del presente convenio establecer los compromisos mutuos que asume Matia y Ayuntamiento de Usurbil para la financiación y ejecución de las obras correspondientes al proyecto para habilitar una nueva parada de bus al pie de la N-634 y construir el sistema de elevación vertical para salvar el desnivel hasta la cota del nuevo Centro Gerontológico y de este modo ayudar a la adecuada gestión y uso del Centro de interés comarcal.

##### **Segunda.- Redacción y aprobación del proyecto**

MATIA ha redactado el proyecto objeto del presente convenio, como separata del proyecto de urbanización del Área “A.96/97”. Este último fue aprobado definitivamente por acuerdo de la Junta de Gobierno



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

betiko onartu zen.

Igogailuaren proiektuan, exekuzio materialaren aurrekontua 1.359.010,10 eurokoa da.

### **Hirugarrena.- lurzoruak antolatzea**

"A.96/97" eremuko birpartzelazio-proiektuaren behin betiko onespeneraren arabera, igogailu bertikalak eragindako lurzoruak Usurbilgo Udalarenak dira, eta autobus geltokiak kaltetutako lurzoruak, berri, Gipuzkoako Foru Aldundiarenak.

### **Laugarrena.- Obrak egitea**

- 1.- MATIA MATIA SERVICIOS SOCIALES, S.L.Uk, (*irabazi-asmorik gabeko elkarte*) eremua urbanizatzeko obra guztiak egin behar dituzenez, irisgarritasun-obrak orokorrekin behar bezala koordinatzeko, konpromisoa hartzen du autobus-gereleku eta altxatze bertikaleko sistema gauzatzeko obra lizitzeko, esleitzeko eta exekutatzeko, eta hori egitea publizitate- eta lehia-printzipioei men eginez, Sektore Publikoko Kontratuen Legeari jarraikiz,
- 2.- Usurbilgo Udalak teknikari bat izendatuko du hitzarmen honen xede den proiektuaren baldintza teknikoak gainbegiratzeko.
- 3.- Obren behin betiko harrerak Foru Aldundiaren eta Usurbilgo Udalaren oniritzia beharko du.

### **Bosgarrena.- Obren finantzaketa**

Usurbilgo Udalak konpromiso hauek hartu ditu:

- 1.- Usurbilgo Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu proiektu hau bultzatzeko:
  - a) **Gehienez** 480.000 € ematea, helmuga finalista izanik, autobus-geltoki berriaren obra eta altxatze bertikaleko sistema ordaintzea, Gerontologia-zentroaren kotaraino dagoen desnibela gainditzeko.
  - b) EIOZentzat ordenantza fiskalean aurreikusitako hobarria aplikatzea.
- 2.- Matiak aurrekontuaren gainerakoa eta sor daitezkeen ezustekoak finantzatzeko konpromisoa

local de fecha 28 de enero de 2020.

En el Proyecto del ascensor, el presupuesto de ejecución material asciende a la cantidad de 1.359.010,10 €.

### **Tercera.- Disposición de suelos.**

En virtud de la aprobación definitiva del proyecto de reparcelación del Área "A.96/97", los suelos afectados por el elevador vertical son de propiedad del Ayuntamiento de Usurbil y los suelos afectados por la parada de autobús de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

### **Cuarta.- Ejecución de las obras**

- 1.- Debido a que MATIA SERVICIOS SOCIALES, S.L.U., (*sociedad sin ánimo de lucro*) debe ejecutar la totalidad de las obras de urbanización del área, con la finalidad de coordinar adecuadamente las obras de accesibilidad con las generales, se compromete, sometiéndose a los principios de publicidad y concurrencia de acuerdo con la Ley de Contratos del Sector Público, licitar la obra de ejecución de la parada de bus y sistema de elevación vertical, procediendo a su adjudicación y ejecución.
- 2.- El Ayuntamiento de Usurbil designará un técnico para supervisar las condiciones técnicas del proyecto objeto del presente convenio.
- 3.- La recepción definitiva de las obras deberá contar con el visto bueno de la diputación Foral y del Ayuntamiento de Usurbil.

### **Quinta.- Financiación de las obras**

El Ayuntamiento de Usurbil se compromete a:

- 1.- El Ayuntamiento de Usurbil se compromete para impulsar este proyecto a:
  - a) Aportar una cantidad **máxima** de 480.000 € con el destino finalista de costear la obra de la nueva parada de bus y el sistema de elevación vertical para salvar el desnivel hasta la cota del centro Gerontológico.
  - b) Aplicación de la bonificación prevista en la Ordenanza fiscal para el I.C.I.O.
- 2.- Matia se compromete a financiar el resto del presupuesto y los imprevistos que pudieran surgir.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

hartzen du.

- 3.- Usurbilgo Udalak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen bidez hartutako finantzaketa-konpromisoei aurre egiteko behar diren aurrekontu-zuzkidurak egiteko.

#### **Seigarrena.- Ordaintzeko modua**

Igogailuaren proiektua exekuzio materialaren aurrekontua kontuan hartuta, Usurbilgo Udalak obraren % 29,68 finantzatuko du, eta gehienez 480.000 € ordainduko dira.

Zenbateko hori hiru zatitan ordainduko da, honela:

- 2023an lehen ordainketa 150.000 eurokoa izango da, betiere ziurtatutako obraren zenbatekoari, Udalarri dagokion ehunekoa aplikatzen bazaio ( % 29,68) eta ondoriozko zenbatekoak 150.000 €ko kopurua gainditzen badu.
- 2023an bigarren ordainketa 150.000 eurokoa izango da, betiere ziurtatutako obraren zenbatekoari, Udalarri dagokion ehunekoa aplikatzen bazaio ( % 29,68) eta ondoriozko zenbatekoak 300.000 €ko kopurua gainditzen badu
- 2024an hirugarren ordainketa 180.000 eurokoa izango da, betiere ziurtatutako obraren zenbatekoari, Udalarri dagokion ehunekoa aplikatzen bazaio ( % 29,68) eta ondoriozko zenbatekoak 480.000 €ko kopurua gainditzen badu

#### **Zazpigarrena.- Titulartasuna eta kontserbazioa.**

Igogailuaren obra egin ondoren, Udalak harrera egingo dio, dagokion espedienteaz izapidetuta, eta instalazioaren mantentze-lanak bere gain hartuko ditu, une horretatik aurrera.

Autobusaren geralekuari dagokionez, harrera Foru Aldundiak egingo du, eta hartatik aurrera haren mantentze-lanak bere gain hartuko ditu.

#### **Zortzigarrena.- Indarraldia.**

Hitzarmen honen indarraldia sinatzen denean hasten da, eta obraren harrera-akta sinatzen denean amaitzen da. Akta hori, gehienez ere, lau urtekoa izango da, salbu eta lehenago luzatzea erabakitzen bada.

#### **Bederatzigarrena.- hitzarmenaren jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoak**

- 3.- El Ayuntamiento de Usurbil se compromete a realizar las dotaciones presupuestarias necesarias para hacer frente a los compromisos de financiación adquiridos mediante el presente convenio.

#### **Sexta.- Forma de pago**

Teniendo en cuenta el presupuesto de ejecución material del Proyecto del ascensor, el Ayuntamiento de Usurbil financiará el 29,68% de la obra siendo la cantidad máxima a abonar 480.000 € .

Dicha cantidad se abonará en tres pagos de la siguiente forma:

- El primero pago de 150.000 € en el año 2023, siempre y cuando al importe de la obra certificada, se le aplique el porcentaje que corresponde al Ayuntamiento (el 29,68%) y la cantidad resultante supere los 150.000 €.
- El segundo pago de 150.000 € en el año 2023, siempre y cuando al importe de la obra certificada, se le aplique el porcentaje que corresponde al Ayuntamiento (el 29,68%) y la cantidad resultante supere los 300.000 €.
- El tercer pago de 180.000 € en el año 2024, siempre y cuando al importe de la obra certificada, se le aplique el porcentaje que corresponde al Ayuntamiento (el 29,68%) y la cantidad resultante supere los 480.000 €.

#### **Séptima.- Titularidad y conservación.**

Una vez ejecutada la obra del ascensor será recepcionada por el Ayuntamiento con la tramitación del expediente correspondiente, asumiendo el mantenimiento de la instalación a partir de la misma.

En relación con la parada del Bus la recepción será practicada por Diputación Foral asumiendo su mantenimiento a partir de la misma.

#### **Octava.- Vigencia.**

La vigencia del presente convenio se inicia con su firma y finaliza con la firma del acta de recepción de las obras, que no podrá ser superior a cuatro años, salvo que se acuerde su prórroga con anterioridad.

#### **Novena.- Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio**



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

Bi erakundeek konpromisoa hartzen dute besteari jakinarazteko hitzarmena betetzeko jarduera garrantzitsuenak bete direla, baita edozein gorabehera, atzerapen edo arazo gertatu dela ere, eta hori gehienez ere hilabeteko epean egingo da.

#### **Hamargarrena.- Hitzarmena burutzea.**

Hitzarmen hau osatutzat hartuko da alderdi sinatzaile guztiek sinatzen dutenean.

#### **Hamaikagarrena.- Hitzarmenaren izaera eta araubide juridikoa.**

Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta hitzarmenaren xede den gaiari buruzko legeriak eta administrazio-zuzenbideko gainerako arauk arautuko dute. Hitzarmena gauzatzean sor daitezkeen auzietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa izango da eskuduna.

Eta ados daudela adierazteko, agertutakoek hiru aletan sinatu dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Las dos instituciones se comprometen a poner en conocimiento de la otra el cumplimiento de las actuaciones más relevantes para el cumplimiento del convenio, así como cualquier incidencia, retraso o problema, en el plazo máximo de un mes desde que suceda.

#### **Décima.- Perfeccionamiento del Convenio.**

Este Convenio se entenderá perfeccionado a la firma del mismo por la totalidad de las partes suscribientes.

#### **Undécima.- Naturaleza y régimen jurídico del convenio.**

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá por la legislación sobre la materia objeto del Convenio y demás normas de derecho administrativo, siendo competente para entender en los litigios que pudieran surgir en su ejecución la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

Y en prueba de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes por triplicado en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

## **TXOSTEN TEKNIKOA**

Udal arkitektoak, Nora Erdozia Ibañez andereak, lankidetzeta-hitzarmena aztertu ostean, 22023ko martxoaren 6an aldeko txostena eman du. Hitzez hitz honela dio:

### **BULEGO TEKNIKOA – HIRIGINTZA**

GAIA: USURBILGO UDALAK ETA MATIA SERVICIOS SOCIALES SLU-K SINATU BEHARREKO HITZARMENARI BURUZKO HIRIGINTZA TXOSTENA

ESPEDIENTE ZK: HZ.06/2023-0042

#### **AURREKARIAK**

- 2004ko irailaren 14ko Diputatuen Kontseiluko akordio bidez onartu ziren Usurbilgo Plangintzako Arau Subsidiarioak, eta 2013ko uztailaren 22ko Foru Agindu bidez Testu Bategina. Hirigintza dokumentu horretan, bi eremu – fisikoki mugakideak direnak – eratzen dira, A-96 (C/SE) “Portalmusu” y la A-97 (C/SE) “Komentua” izena zutenak.

Matia Fundazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta, Usurbilgo udalerrian Gerontologia Zentro berri bat eraikitze aldeko apustua egin zuen. Horretarako, 2019an, Matiak, Usurbilgo Arau Subsidiarioetako A-96 eta A-97 eremua osatzen duten lursail pribatu guztien jabe zen aldetik,



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

hirigintza-plangintzaren egokitzapena bultzatu zuen eremuko Plan Bereziaren aldaketa sustatuz.

Espedientea izapidetu ondoren, 2019ko maiatzaren 23ko osoko bilkuran, Arau Subsidiarioen A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuen Plan Bereziaren aldaketa behin betiko onartu zen. Akordio hori 2019ko maiatzaren 30eko GAO n argitaratu zen, 30. zenbakian.

Gaur egun, Usurbilgo Udalak plangintzarako eta exekuziorako tresna guztiak onartu ditu (HAPBren aldaketa, UJP, Birpartzelazio Proiektua, Urbanizazio Proiektua), eta ekipamendua eraikitzeke lizentzia emanda, gaur egun ekipamendua eraikitzen ari dira. Era berean, Usurbilgo Udala Arau Subsidiarioak aldatzeko espediente bultzatzen ari da, ekipamenduan "Berrikuntza eta Bizitoki Proiektu-Programa" berria gara dezan.

- Ekipamenduaren garapenak halaber, irisgarritasun unibertsala behar bezala konpontzea eskatzen du. Hala, beharrezkoa da, N-634 errepidean, ekipamenduaren oinean, garraio publikoko geltoki bat izatea, eta zaintzadun etxebizitzaren zentrori iristeko mugikortasun bertikaleko sistema bat jartzea.

Onartutako plangintza- eta kudeaketa-tresna guztietan, zentroaren irisgarritasun-proiektua aurreikusita zegoen, aipatutako garraio publikoko geltoki eta mugikortasun bertikaleko sistema planifikatuz. Baina 2019. urtean irisgarritasun-proiektuaren hazkunde ekonomikoak arriskuan jarri zuen proiektu osoaren bideragarritasuna, eta, beraz, beharrezkotzat jo zen ekipamenduaren eraikuntzari lehentasuna ematea eta, bigarren fasean, irisgarritasun-proiektua gauzatzea.

Gaur egun, egoera ekonomikoari esker, irisgarritasun unibertsaleko proiektua berriro gauzatzeko aukera dago. Ondorioz, Usurbilgo Udalak eta Matia Servicios Sociales SLUK hitzarmen bat sinatu nahi dute, elkarrekiko konpromisoak arautzeko, N-634 errepidearen oinean autobus-geraleku bat jartzeko eta zentro gerontologiko berrira iristeko igogailua eraikitzeke lanak finantzatu eta gauzatzeko.

## **TXOSTENA**

- Hitzarmenaren helburua, N-634 errepidearen oinean autobus-geltoki berri bat egiteke proiektuari dagozkion obrak finantzatzeko eta gauzatzeko, eta mugikortasun bertikaleko sistema eraikitzeke, Zaintzadun Etxebizitzaren zentro berriaren kotaraino dagoen desnibela gainditzeko eta, horrela, eskualde-intereseko zentroa behar bezala kudeatzen eta erabiltzen laguntzeko, Matiak eta Usurbilgo Udalak beren gain hartzen dituzten elkarrekiko konpromisoak ezartzea da.
- Horretarako, Usurbilgo Udalarekin eta Foru Aldundiarekin adostuta, Matiak hitzarmen horren xede den exekuzio proiektua idatzi du, 2020ko urtarrilaren 28an Usurbilgo gobernu batzarrak 2020ko urtarrilaren 28an



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

behin betiko onartutako A-96 A-97 Area Urbanizatzeko proiektuaren separata gisa.

“Usurbilgo berrikuntza gunea eta zaintzadun etxebizitzaren irisgarritasun unibertsalaren proiektua” Rehabite Aholkularitza Teknikoa SLP enpresak idatzi du eta Aritz Berategui Aizpurua, Enrike Etxeberria Lekuona eta Josu Laguardia Iginitz arkitektoek sinatuta eta EHAEKO-k 2022ko abenduaren 29an onetsi zuen.

- Aztertu dira A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetan izapidetu diren hirigintza eta kudeaketa dokumentuak, eta Urbanizazio Jarduketa Programak urbanizazio bi fase ezartzen ditu (0-05 planoan jaso dira), lehenengo fasea eremuaren urbanizazio-lan orokorrak osatzen dute (Jarduketa eremu integratuarena) eta bigarren fasea berriz N-634 errepideko autobus geltokiek eta igogailu sistemak osatzen dute. Zehazki bigarren fase hau burutzeko helburua du sinatu nahi den hitzarmenak.

Aztertu da Matiak idatzitako “Usurbilgo berrikuntza gunea eta zaintzadun etxebizitzaren irisgarritasun unibertsalaren proiektua” eta bat dator onartutako hirigintza eta gestio dokumentuetan ezarritakoarekin.

Memorian dioten moduan, proiektuaren helburua *Usurbilgo udalerriko A.96/97 Arean Berrikuntza Zentroaren irisgarritasun unibertsalerako 2 igogailu eta 2 autobus-geltoki eta zaintzapeko etxebizitzak eraikitze beharrezkoak diren obrak zehaztea eta proposatutakoaren benetako balorazioa lortu ahal izatea da. N-634 errepidean 2 autobus-geltoki sortu dira Matia Berrikuntza Gunea eta Zaintzadun Etxebizitza berriaren parean (+18.80 kota), eta 2 geltoki horiek hiri-plaza berriarekin lotu dira Kalezar parean (+42.50 kota), 2 igogailu eraikitzeari esker. Igogailu horiek, gainera, eraikinean +35.50 kotan kokatuko den udaletxe lokalarekin lotuko dira.*

“Usurbilgo berrikuntza gunea eta zaintzadun etxebizitzaren irisgarritasun unibertsalaren proiektua”-ren aurrekontua honakoa da:

- *Exekuzio Materialaren Aurrekontua = 1.359.010,10 €*
- *Kontrata Aurrekontua = 1.617.222,02 €*

Hitzarmenak jasotzen duenez, Usurbilgo Udalak gehienez ere 480.000 € emango ditu proiektuko obrak finantzatzeko, hau da, Kontrata Aurrekontuaren % 29.68.

- Baimenei dagokionez, aipatu behar da proiektu honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena den N-634 errepidean eragina duela eta hortaz, beharrezkoa da organo eskudunaren aldeko txostena. Eskaera egin da, eta Foru Aldundiak N-634 errepidean, 2,85 Kpan “Usurbilgo berrikuntza gunea eta zaintzadun etxebizitzaren irisgarritasun unibertsalaren proiektu”ko obrak eta erabilerak egiteko baimena ematen duen ebazpena bidali du Usurbilgo udalera.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

Halaber, 2023ko otsailaren 14ko Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak, udal arkitektoaren aldeko txostena oinarri, "Usurbilgo berrikuntza gunea eta zaintzadun etxebizitzaren irisgarritasun unibertsalaren proiektu"ko lanak eraikitze baimena eman dio Matia Servicios Sociales SLU enpresari, akordioan ezarritako baldintzetan.

## **ONDORIOA**

Goian aipatutakoa jarraituz, Usurbilgo Udalak eta Matia Servicios Sociales SLUren artean sinatu beharreko hitzarmenari buruzko ALDEKO hirigintza txostena idatzi da.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, sinadura datan  
Udal Arkitektoa

## **TXOSTEN JURIDIKOA**

Udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L.P. taldeko Nekane Azarola Martinez abokatuak, lankidetzat hitzarmena aztertu ostean, 2023ko urtarrilaren 26an ALDEKO txostena eman du. Hitzez hitz honela dio txostenak:

### **USURBILGO UDALAREN ETA MATIA SERVICIOS SOCIALES SLUREN ARTEAN SINATU BEHARREKO HITZARMENARI BURUZ TXOSTEN JURIDIKOA**

#### **I.- AURREKARIAK**

- 1.- Matia Fundazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta, Usurbilgo udalerrian Gerontologia Zentro berri bat eraikitze aldeko apustua egin du.
- 2.- MATIAk, Usurbilgo Arau Subsidiarioetako "A.96/97 MIRAVALLE" eremua osatzen duten lursail pribatu guztien jabe zen aldetik, hirigintza-plangintzaren egokitzapena bultzatu du.
- 3.- Gaur egun, Usurbilgo Udalak plangintzarako eta exekuziorako tresna guztiak onartu ditu (HAPBren aldaketa, UJP, Birpartzelazio Proiektua, Urbanizazio Proiektua), eta Arau Subsidiarioak aldatzeko espediente bultzatzen ari da, ekipamenduan "Berrikuntza eta Bizitoki Proiektu-Programa" berria gara dezan.
- 4.- Ekipamendu gerontologikoaren garapenak eskatzen du, irisgarritasun unibertsala behar bezala konpontzea. Hori dela eta, beharrezkoa da, N-634 errepidean, ekipamenduaren oinean, garraio publikoko geraleku bat izatea, eta Gerontologiko zentrorira iristeko bertikaleko sistema bat jartzea.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

5.- Onartutako plangintza- eta kudeaketa-tresna guztietan, zentroaren irisgarritasun-proiektua aurreikusita zegoen. Baina 2019. urtean irisgarritasun-proiektuaren hazkunde ekonomikoak arriskuan jarri zuen proiektu osoaren bideragarritasuna, eta, beraz, beharrezkotzat jo zen ekipamenduaren eraikuntzari lehentasuna ematea eta, bigarren fasean, irisgarritasun-proiektua gauzatzea.

6.- Gaur egun, egoera ekonomikoari esker, irisgarritasun unibertsaleko proiektua berriro gauzatzeko aukera dago. Ondorioz, Usurbilgo Udalak eta Matia Servicios Sociales SLUK hitzarmen bat sinatu nahi dute, elkarrekiko konpromisoak arautzeko, N-634 errepidearen oinean autobus-geraleku bat jartzeko eta zentro gerontologiko berrira irsteko igogailua eraikitzeke lanak finantzatu eta gauzatzeko.

Honen bidez, hirigintza hitzarmenari txosten juridikoa idazten da.

## **II.- HITZARMENAREN IZAERA JURIDIKOA**

Hitzarmenaren helburua da alderdiek obra bat finantzatzeko dituzten konpromisoak arautzea. Xedea ez da hirigintza-antolamendua eta kudeaketa; ondorioz, EZ gaude ekainaren 30eko 2/2006 Legean araututako hirigintza-hitzarmen baten aurrean.

Beraz, aplikagarria da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikulua eta hurrengoak.

## **III.- HITZARMENAREN AZTERKETA JURIDIKOA**

### **III.1.- INTERES PUBLIKOAREN JUSTIFIKAZIOA.**

Hitzarmenaren azalpenean zehar, eta zehazki IX. atalean, interes publikoa justifikatzen da hitzarmena gauzatzeko eta Usurbilgo Udalak irisgarritasuna hobetzeko diru-kopuru bat emateko.

Ildo horretatik, Gerontologia-zentroa behar bezala garatzeko eta erabiltzeko, irisgarritasuna bermatu behar da, bai bertan biziko direnentzat bai senide eta bisitarientzat. Gainera, Usurbilgo herritarrentzat, udalerriko irisgarritasuna hobetzea dakar.

Beraz, proposatzen den hitzarmena interes publikoko arrazoigatik gauzatzen da.

### **III.2.- USURBILGO UDALAK BERE GAIN HARTUTAKO BETEBEHARREI DAGOKIENEZ**

Usurbilgo Udalak hiru konpromiso hartu ditu bere gain:

- a) Gehienez 480.000€ ordaintzea, helmuga finalista izanik autobus-geltoki berriaren obra eta igogailua ordaintzea, Gerontologia-zentroaren kotaraino dagoen desnibela gainditzeko.





Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

- b) EIOZentzat ordenantza fiskalean aurreikusitako hobaria aplikatzea.
- c) Igogailuaren obra egin ondoren, Udalak instalazioaren mantentze-lanak bere gain hartuko ditu.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen i 49 d) artikulua ezartzen du konpromiso ekonomikoen kasuan betebeharrak dela urteka denbora-banaketa ezartzea eta hori aurrekontuari egoztea.

Bosgarren estipulazioko 3. puntuan, Udalak ordaintzeko beharrezkoak diren aurrekontu-zuzkidurak egiteko konpromisoa hartzen du.

Seigarren estipulazioan urteko kuotak zehazten dira, lau ordainketatan banatuta.

EIOZren hobariari dagokionez, berariaz aipatzen da Udalak onartutako Ordenantza fiskala aplikatuko duela.

Azkenik, igogailuaren mantentzeari dagokionez, lurzoru publiko batean eraikitako instalazioa bat da (Matiak lagapenak egin ditu), Udalak harrera egingo dio, eta oro har, bizilagunei zerbitzua emango die, ez soilik ekipamenduari. Aipatutako guztiagatik, juridikoki bidezkoa da mantenua publikoa izatea.

### **III.3.- JABEEK BEREN GAIN HARTUTAKO BETEBEHARREI DAGOKIENEZ**

Bigarren, laugarren eta bosgarren klausuletan Matia Servicios Sociales S.Luren betebeharrak arautzen dira.

Betebeharrak honako hauek dira: proiektu teknikoa idaztea, obrak gauzatzea eta Usurbilgo Udalak jarriko dituen 480.000 €-tik gorako zenbateko osoa ordaintzea.

Ezusteak ere ordainduko dituzte.

Beraz, 40/2015 Legearen 49. artikulua c) eta d) atalak betetzen dira.

### **III.4.- HITZARMENEN EDUKIARI DAGOKIENEZ**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikulua hitzarmenen eduki orokorra arautzen du.

Hitzarmenaren proposamena aztertu da, eta honako zehaztapen hauek betetzen ditu:

- a) Hitzarmenean bi alderdien hitzarmena gauzatzeko gaitasun juridikoa ezartzen da, bai alkatearena, bai Matia Servicios Sociales, SLU enpresako ordezkariarena.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

- b) Udalaren eskumena adierazten da, eta onartzeko organo eskuduna zehaztuz.
- c) Xedea lehenengo klausulan zehazten da.
- d) Aldeek beren gain hartutako konpromisoak eta betebeharrak bigarren klausulatik zazpigarrenera bitartean jasotzen dira.
- e) Hitzarmena betetzeko zaintza- eta kontrol-mekanismoei dagokienez, bederatzigarren klausulan arautua dago.
- f) Epeari dagokionez, 49.h) artikulua 4 urteko epea ezartzen du (8 urtera luza daiteke) hitzarmenen indarraldirako, izaera orokorrarekin. Dagokigun kasuan, Udalak azken ordainketa 2024an egitea aurreikusten da; beraz, lau urteko legezko epea betetzen da.

Ondorioz, hitzarmenak aipatutako 49. artikuluan ezarritakoa betetzen du.

#### IV.- ONARTZEKO PROZEDURA

Hirigintza-izaerako hitzarmena EZ denez, ez da beharrezkoa jendaurrean jartzea 20 egunez. Beraz, organo eskudunak onartu ondoren, alderdiek sinatu beharko dute.

Azaldutako guztiagatik, **ALDEKO TXOSTENA** ematen zaio Usurbilgo Udalaren eta MATIA SERVICIOS SOCIALES SLUren arteko hitzarmenari.

Usurbilen, 2023ko urtarrilaren 26an  
Nekane Azarola Martínez.  
Abokatu. Araudi SLP

Udal kontuhartzaileak, Gorka Lizarraga Erro jaunak, hitzarmenaren baitan adostutako ordainketak burutzeko beharrezko diru-erreserbak egin ditu:



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

1. Dok. Erref.		Data		Zenbakekoa	
RCT	649 - 2023	2023/03/13		300.000,00	
2. Dok. Erref.		Data		Kostu zentrosa	
Partida 1 8000.781.231.01.01 2023 (4717) Matia Hitzarmena: Igogailua					
Azalpena MATIAREKIN IGOGAILUAREN HITZARMENA SINATZEKO ZATIA I					
Hirugarrena				I.F.Z.	IK
Goiburua RCT 08 2023-00-000649-000					
Aurreko erreferentzia					

1. Dok. Erref.		Data		Zenbakekoa	
RCT	648 - 2023	2023/03/13		180.000,00	
2. Dok. Erref.		Data		Kostu zentrosa	
Partida 5 8000.781.231.01.01 2024 (1) Matia Hitzarmena: Igogailua					
Azalpena MATIAREKIN IGOGAILUAREN HITZARMENA SINATZEKO ZATIA II					
Hirugarrena				I.F.Z.	IK
Goiburua RCT 08 2023-00-000648-000					
Aurreko erreferentzia					

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2023ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria, Mirari Azurmendi eta Patxi Suarezzen aldeko botoekin, aho batez, egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Igogailua eta autobus geltoki berria egiteko MATIA SERVICIOS SOCIALES, S.L.U. enpresaren eta Usurbilgo Udalaren arteko LANKIDETZA HITZARMENA, azalpenetan jasotakoa, onartzea.

**BIGARRENA:** Alkateari ahalmena ematea Usurbilgo Udalaren izenean aipatutako Lankidetzaren hitzarmena izenpetzeko.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta kontuhartzaitzari ematea.”

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, aho batez hartu da erabakia.

## **7.- HAAS-ETAKO A-107 (IARTZA) EREMUKO HEU 107.3, HEU 107.2 ETA HEU 107.5 EXEKUZIO UNITATEEN MUGAKETA ALDAKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.**

Batzarkideek Hirigintza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: HZ.01/2022-0466

### AURREKARIAK

AINARA SAGARNA ARAMBURU andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) eremuko HEU 107.3, HEU 107.2 eta HEU 107.5 exekuzio unitateen mugaketa aldatzea eskatu zuen, horretarako dokumentazio grafikoa aurkeztuz.

Alkatetzak, 2023ko urtarrilaren 24an, udal arkitektoaren aldeko txostena kontutan izanik, 2023/66 zenbakidun dekretuaren bidez, zera erabaki zuen:

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) eremuko HEU 107.3, HEU 107.2 eta HEU 107.5 exekuzio unitateen mugaketa aldatzeko AINARA SAGARNA ARAMBURU andereak aurkeztutako proposamena hasieraz onartzea.

**BIGARRENA:** Espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek espedientea aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta eragindakoei ematea.

Hartutako erabakia kontutan izanik, espedientea jendaurrean jarri zen 20 lanegunez ondoko iragarkia argitaratuz:

- Berria: 2023-01-26
- Gara: 2023-01-27
- El Diario Vasco: 2023-01-27
- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (26. zenbakia): 2023-02-08



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean ez da alegaziorik aurkeztu.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2023ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria, Mirari Azurmendi eta Patxi Suárezen aldeko botoekin, aho batez, egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak erabaki hauek hartu ditu:

## **E R A B A K I A K**

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) eremuko HEU 107.3, HEU 107.2 eta HEU 107.5 exekuzio unitateen mugaketa aldatzeko AINARA SAGARNA ARAMBURU andereak aurkeztutako proposamena behin betikoz onartzea.

**BIGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) eremuko HEU 107.3, HEU 107.2 eta HEU 107.5 exekuzio unitateen mugaketa aldatzeko AINARA SAGARNA ARAMBURU andereak aurkeztutako proposamena Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

**HIRUGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) eremuko HEU 107.3, HEU 107.2 eta HEU 107.5 exekuzio unitateen mugaketa aldatzeko AINARA SAGARNA ARAMBURU andereak aurkeztutako proposamenaren behin betiko onespina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta errenta teknikariari ematea mugaketa aldaketaren izapidetze gastuak kobra ditzan.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, aho batez hartu da erabakia.

## **8.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-59 (UGARTONDO) EREMUKO BARNE-ERREFORMARAKO PLAN BEREZIAREN TESTU BATEGINEKO EQ.1 PARTZELAN ZUZKIDURA-ALOJAMENDUAK EGITEKO EXEKUZIO OBRA: PREZIOEN EZOHIKO BERRIKUSPENA.**

Puntu hau diktaminatu gabe dagoenez, hasteko, batzarkideek aho batez gai-zerrendan sartzea berretsi dute.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

Udal gobernu taldeak emendakina aurkeztu dio alkatearen haserako proposamenari. INEk argitaratutako azken indizea 2022ko irailekoa denez, hori kontuan hartuta, zenbatekoa 136.374,27 eurokoa izatea, 72.027,44 euro izan beharrean.

Batzarkideek udal gobernu taldeak aurkeztutako emendakina aho batez onartu dute eta proposamena egokitu da.

Alkateak azaldu du hirigintza batzordean eman zituela azalpenak eta ordunik hona egoera ez dela gehiegi aldatu. Zehaztu du Udalak konpromisoa hartu duela diru hau ez dela Muriasekengana joango, Udalari kreditu lagapen bat egiteko eskatu zaiola esan du, hau da, zorrak dituzten enpresei zuzenean bideratzea dirua.

Udalak Txirikordari dagozkion zenbateko guztiak ordainduta dituela eta obraren %99,6a zertifikatuta dagoela esan du eta Udalak egunean eraman dituela ordainketa guztiak.

Gerora jakin dutela esan du Muriasek eta Grupo Urbasek ez dituztela zorrak soilik obra honetan, beste hainbat obra publiko eta pribatuetan ere zor haundiak eragin dituztela.

Txirikordako kasuan Udalak eskuak nahiko lotuta dituela esan du, obra ordainduta dutelako. Hori horrela, egingo dutena da prezio berrikuspenetik datorren dirua Muriasek zorrak dituen enpresetako biri bideratu, Muriasek horrela eskatuta.

Mirari Azurmendik galdetu du ea zorrak zenbatekoak diren.

Alkateak erantzun dio hori dela behin eta berriz eskatu dien informazioa, Txirikordan zenbateko zorra eragin duten eta norekin, eta datu hori ez dutela dio ez baitie pasa.

Murias eta Grupo Urbasen jokatzeko modua erabat salagarria dela azpimarratu du, diru publikoaren erabilera oker bat egiten ari baitira.

Josune Urkolak galdetu du ea diru hori 70.000 euro diren.

Alkateak erantzun dio ez direla 70.000 euro. Lehen aipatu duen bezala, azken indizeen arabera eta azken txostenean jasota dagoen moduan 136.374,27 euro izango direla zehaztu du. Horri gehitu beharko zaizkiola dio likidatzeko falta diren 15.000 euro, eta gaineratu du ikusi beharko dela zer egin abalarekin.

Alkateak jarraitu du esanez Ugartondon urbanizazio lanak amaitzear daudela, baina bertan lanak geratu egin direla Campegori lanak ez zaizkiolako ordaindu. Azken bileran Murias eta Grupo Urbasek berriro ere konpromisoa hartu zutela esan du zorrak ordaintzeko eta epe



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

motzean hasiko direla aurreikusten dutela adierazi omen zuten. Urbanizazioari dagokionean 260.000 euro zor omen dituzte eta 40.000 euroko lanak falta omen dira egiteko. Tartean zorra obra zuzendaritzarekin omen dute eta zehaztu du bilera horretan adierazi zutela ordainduko diela.

Mirari Azurmendik galdetu du orain zuzenean ordaindu behar zaien azpikontrataturako enpresa horiek zein diren.

Alkateak erantzun diot bat dela Zuaznabar eta bestea pintura lanak egin dituen enpresa bat.

Batzarkideek egokitutako proposamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: ID.05 / 2021 - 0054

## AURREKARIAK

- I.- 2021eko apirilaren 29ko Udalbatza plenoak prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra kontratatzekeo espedienteari onespena eman zion, udal Kontratatzaille Plataforman argitaratuz.
- II.- 2021eko irailaren 30eko Udalbatza plenoaren erabakiz esleipena CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. enpresari egin zitzaion eta kontratua 2021eko urriaren 5ean sinatu zen, 1.953.312,02 eurotan (BEZa salbuetsita). Zuinketa akta 2021eko abenduaren 16koa da.
- III.- 2022ko urtarrilaren 14ko 2022/30 Alkatetza Dekretu bidez (gerora Udalbatza Plenoak 2022ko urtarrilaren 27an egindako ohiko bilkuran berretsia), obra kontratu hau aldatzea onetsi zuen, obra gehigarriak txertatzeko. Adaketaren kopurua 49.162,90 eurokoa izan zen, hau da, esleipen prezioarekiko %2,52ko igoera. Halaber esleipendunak 2.458,14 eurotan handitu zuen kontratuaren behin betiko bermea.
- IV.- Udalbatza Plenoak 2022ko irailaren 29an egindako ohiko bilkuran obra kontratu hau bigarren aldiz aldatzea erabaki zuen, obra gehigarriak eta funtsezkoak ez diren aldaketak txertatzeko. Aldaketaren kopurua 29.739,41 eurokoa izan zen, hau da, esleipen prezioarekiko %1,52ko igoera. Esleipendunak 1.486,97 eurotan handitu zuen kontratuaren behin betiko bermea.
- V.- 2022ko abenduaren 16ko 2022-000005078 erregistro zenbakidun idatziaren bidez CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. enpresak obra kontratu honetako prezioen ezohiko berriskupena eskatu zuen. Berrikuspenaren behin-behineko kopurua 218.825,27 eurotakoa da.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

- VI.- Udal Aparejadoreak 2023ko martxoaren 14an ezohiko berrikuspen eskaera horren inguruko txosten teknikoa osatu du, kontratu honen arduradun den Hirigintza buruak 2023ko martxoaren 21ean ontzat emana. Udal teknikarien proposamenaren baitan legez dagokion kopurua 72.027,44 eurotakoa da. Kontuhartzaileak RCT 748-2023 agiria osatu du eta Idazkaritza sailak kontratuko prezioaren ezohiko berrikuspenaren aldeko txosten juridikoa eman du.

Alkatearen proposamen egokitua kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakiak hartu ditu:

## ERABAKIAK

**LEHENENGOA.** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra kontratuaren prezioen salbuespenezko berrikuspena egiteko behin-behineko baimena ematea eta salbuespenezko berrikuspena kalkulatzeko irizpideen arabera zenbatekoa 136.374,27 eurotakoa (BEZa salbuetsita) dela zehaztea.

**BIGARRENA.** Kontratistari behin-behineko proposamena helaraztea eta 10 egun balioduneko epean entzunaldia ematea, egokituz jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan.

**HIRUGARRENA.** Emandako epean alegaziorik egongo ez balitz edo kontratistak alegazioak aurkezteko aukerari uko egingo balio, salbuespenezko behin-behineko berrikuspen kopuru hau behin-betikotzat jotzea eta obraren azken zertifikazioarekin batera ordaintzea, dagokion gastua baimendu eta xedatuz: 2023 ekitaldiko 1.6000.622.152.01.01 kontusaila (RCT 748-2023 eta RCT 831-2023).

**LAUGARRENA.** Salbuespenezko berrikuspen honen ondoriozko zenbatekoa jasotzen duen kontratistak azpikontratistari erreperkutitu beharko dio azpikontratutako obraren zatian dagokion zenbatekoa, martxoaren 1eko 3/2022 Errege Lege Dekretuaren 10.3 artikuluan jasotzen denez. Azpikontratistak kontratistaren aurkako akzioa izango du zati hori erreklamatzeko. Dena den, azpikontratistek ez dute kontratistak kontratu nagusia eta azpikontratuak egikaritzearen ondorioz haiekin hartutako obligazioengatik administrazio kontratatzailearen aurrean zuzeneko ekintzarik izango.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, gehiengoz hartu da erabakia.





Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

## **9.- 2023KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA (ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKO ETA INFORMATIKA SISTEMEN TEKNIKARI POSTUA SORTZEA).**

Beñat Larrañagak azalpenak eman ditu. Pertsonal batzordean azaldu zuen moduan, duela hiru urte informatikari lanpostuari zegokion programa bat abian jarri zutela esan du, legeak ziona bete asmoz udalari zegokion tramitazio guztia elektronikoki egin ahal izateko. Beharrak hor jarraitzen duelako eta gerora ere behar hori hor egongo delako, proposatzen dutena da lanpostua sortzea.

Beñatek zehaztu du betekizun legal baten aurrean daudenez, lanpostua sortzeko ez dela erreposizio tasa baten beharrik.

Gaineratu du postuaren izena informatikaria izan beharreak, "Administrazio elektronikoko eta informatika sistemen teknikaria" izendatzea hobetsi dutela.

Batzarkideek Pertsonal batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

"2023ko Lanpostuen zerrenda 2022ko abenduaren 22ko ezohiko udalbatzan onartu zen. Ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2023ko otsailaren 23an.

Orain berriz, "Administrazio elektronikoko eta informatika sistemen Teknikaria" postua sortu beharra ikusi da.

Lanpostuen zerrenda apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. eta hurrengoetan eta abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikorako 11/2022 Legeak 45. artikuluan arautzen da. Dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Dena den, egintza administratiboa den heinean, argitaratzea informazioa emateko helburuarekin egiten da eta hortaz, indarrean egongo da, Udalbatzaren erabakitik.

Pertsonal eta Antolakuntza teknikariak txostena osatu du eta aldaketa proposamena 2023ko martxoaren 14ko Negoziaketa Mahai Orokorrean landu da.

Gaia 2023ko martxoaren 21ean egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz onartua gelditu da, hurrengo bozkek eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Urdanpilleta, Agurtzane Solaberrieta, Patxi Suarez
- Abstentzioa: Josune Urkola

Pertsonal batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak erabaki hauek hartu ditu:

### **ERABAKIAK**

LEHENENGO: 2023ko Lanpostuen Zerrendan proposatutako aldaketak sartzea.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, gehiengoz hartu da erabakia.

## **10.- 2023KO PLANTILA ORGANIKOAREN ALDAKETA.**

Beñat Larrañagak zehaztu du plantila organikoarekin alderatuta, plantila organikoak 15 eguneko jendaurreko epe bat duela erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Batzarkideek Pertsonal batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“2023ko Plantilla Organikoa 2022ko abenduaren 21eko ezohiko udalbatzan onartu zen. Ondoren, 2023ko otsailaren 22an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitarako eta erreklamaziorik egon ez zenez, behin betikoz 2023ko martxoaren 6ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2023ko Lanpostuen Zerrendan proposatu den aldaketak Udal Plantilan duen eragina honakoa da:

- Administrazio Bereziko Eskalan Goi mailako teknikarietan “Administrazio elektronikoa eta informatika sistemen Teknikaria” postua sortzea.

Pertsonal eta Antolakuntza teknikariak txostena osatu du eta aldaketa proposamena 2023ko martxoaren 14ko Negoziaketa Mahai Orokorrean landu da.

Gaia 2023ko martxoaren 21ean egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz onartua gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Urdanpilleta, Agurtzane Solaberrieta, Patxi Suarez  
- Abstentzioa: Josune Urkola

Pertsonal batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakiak hartu ditu:



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

## ERABAKIAK

LEHENENGOA: 2023ko plantillan proposatutako aldaketa sartzea.

BIGARRENA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua izango litzatekelarik.

HIRUGARRENA: Behin betikoz onartu ondoren, dokumentua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.“

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zampirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, gehiengoz hartu da erabakia.

### 11.- 2023KO SOLDATA IGOERA ONARTZEA.

Beñat Larrañagak azaldu du Estatuko Aurrekontuen Legean kontenplazten dela langile publikoen soldatak gehienez %2,5eko igoera izatea eta hori dela dakarten proposamena. Igoera atzera eraginez urtarriletik hona aplikatuko dela zehaztu du.

Batzarkideek Pertsonal batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Aurrekariak:

2023 urteari dagokion langile publikoen soldata igoera dela eta, abenduaren 23ko 31/2022 **Estatuko Aurrekontuen Legearen** 19. artikulua zera dio:

“*Dos. 1. En el año 2023, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2,5 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2022, en términos de homogeneidad para los dos periodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.*”

(...)



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

*Cuatro. 1. La masa salarial del personal laboral, que podrá incrementarse en el porcentaje máximo previsto en el apartado dos de este artículo, en términos de homogeneidad para los dos periodos objeto de comparación, está integrada por el conjunto de las retribuciones salariales y extrasalariales devengadas por dicho personal en el año anterior.*

*Se exceptúan, en todo caso:*

- a) Las prestaciones e indemnizaciones de la Seguridad Social.*
  - b) Las cotizaciones al sistema de la Seguridad Social a cargo del empleador.*
  - c) Las indemnizaciones correspondientes a traslados, suspensiones o despidos.*
  - d) Las indemnizaciones o suplidos por gastos que hubiera realizado el trabajador.*
- (...)*

*Ocho. Los acuerdos, convenios o pactos que impliquen crecimientos retributivos superiores a los fijados en este artículo deberán experimentar la oportuna adecuación, deviniendo inaplicables las cláusulas que se opongan al mismo.”*

Bere aldetik, 15/2022 legea, abenduaren 23koa, **Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorrak** onartzen dituenak, zera dio:

*“19. artikulua Langileen ordainsariak.*

*1.– Sektore publikoko langileen gastuei buruz ematen diren oinarritzko xedapenak eragotzi gabe, 2023. urtean, lan-kontratudunak ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, organismo autonomoetako, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sektore publikoko partzuergoetako langileen urteko guztizko ordainsariek ezin izango dute % 2,5etik gorako gehikuntza orokorrik izan 2022ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean. Ordainsari horiek, betiere, homogeneotasunaren arabera kalkulatu dira, erkaketaren bi aldietarako, bai langileen kopuruari eta antzinasunari dagokienez, bai lanaldi-araubideari dagokienez.”*

Bestetik, indarrean dagoen **Usurbigo Udaleko Lan Hitzarmenak** zera arautzen du:

*“88. artikulua.- Ordainsarien igoera*

*1. Erakunde sinatzaileek eros-ahalmenaren mantentzea hartuko dute erreferentzia modura. Horretarako Akordio hau indarrean dagoen bitartean, ezarri behar diren aurrekontu-arauei arabera izango da igoera.*

*Igoera urte bakoitzeko urtarrileko nominatik aplikatuko da, azken abendu eta azken aurreko urteko abenduaren Gipuzkoako KPI-a kontuan hartuz. KPI hori negatiboa izango balitz, ez da jaitsierarik aplikatuko. Hortik gorako igoerak urtez urte aztertu eta adostuko dira, uneko ekonomia eta legearen arabera.*

*Edozein kasutan, KPI-aren arabera igoerak beti ere legeak ahalbideratzen baditu eta legeak ahalbideratzen dituen neurrian burutuko dira. Legeak mugak jartzen baditu*



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

*konpromezua ez da beteko (...)*"

Pertsonal eta Antolakuntza teknikariak txostena osatu du eta gaia 2023ko martxoaren 14ko Negoziaketa Mahai Orokorrean landu da.

Gaia 2023ko martxoaren 21ean egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren aho batez onartua gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga, Agurtzane Solaberrieta, Patxi Suarez, Josune Urkola

Pertsonal batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak erabaki hauek hartu ditu:

## **ERABAKIAK**

**LEHENENGOA:** Usurbilgo Udaleko langileen lansariak %2,5-a igotzea onartzea, 2023ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, beti ere 2022ko abenduaren 31ean indarrean zeuden lansariei buruz, eta alderatzen diren bi aldien artean homogeneotasuna baldintzetan, bai langilegoa osatzen dutenen kopuruari dagokionez nola baita langile horien antzinatean sarien kopuruari dagokionez ere. Guzti hori Estatuko 2023ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 legean jasotako ahalbidearekin bat etorritz.

**BIGARREN:** Akordio honen berri langileen ordezkarietara eta Kontuhartzaitza sailari ematea."

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, aho batez hartu da erabakia.

## **12.- NOAUA! ETA USURBILGO UDALAREN ARTEKO 2020KO HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA ETA HITZARMEN BERRIA ONARTZEA.**

Oskar Santamariak azalpenak eman ditu. Hasteko, Noaua!k 2022ko irailaren 28an Usurbilgo Udalari helarazitako txostena irakurri du eta adierazi du aurreko hitzarmenaren baitan 2021, 2022 eta 2023rako urtero 58.000 euroko dirulaguntza aurreikusita zegoela, baina igorritako txostena ikusita, proposatzen dutena da 2020ko hitzarmena bertan behera uztea eta hitzarmen berria egitea hiru urterako. Hitzarmen berriaren baitan 2023, 2024 eta 2025ean urtero 78.000 euroko ekarpena egitea aurreikusten dutela gaineratu du.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

Batzarkideek Kultura, Euskara eta Gazteria batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: KE.02/2023-0024

## Ikusirik

Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzak Arautzeko Ordenantzaren 2. atalean hitzartutako dirulaguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak dirulaguntzak emateko duen bideetako bat bezala.

Bestalde, Usurbilgo Udalaren 2023-2025 dirulaguntzen Plan Estrategikoan, Noaua! eta Usurbilgo Udalaren arteko hitzarmena jasotzen da.

2020ko maiatzaren 11n Noaua!k eta Usurbilgo Udalak hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen honen diru-ekarpenarekin aldizkaria eta webgunea finantzatu dira. Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa zen, eta, honenbestez, 2023an maiatzaren 11n amaitzen zen hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmenaren arabera, urtez urte, Usurbilgo Udalak Noaua!ri dirulaguntza hau ematea aurreikusten zen:

2020an: 56.000 euro  
2021ean: 58.000 euro  
2022an: 58.000 euro  
2023an: 58.000 euro.

Noaua!k, Usurbilgo Udalaren dirulaguntzaz gain, urtero Gipuzkoako Foru Aldunditik ere dirulaguntza jasotzen du.

Noaua!k 2022ko irailaren 28an Usurbilgo Udalari helarazitako txostenean, adierazten du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-ekarpena gutxitu egin dela:

*“2019an euskarazko hedabideekin dirulaguntzen politika berri bat jarri zen martxan, lanketa luze baten ondorioz, eta tokiko hedabideok Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 3 urterako hitzarmena sinatzea lortu genuen. Modu honetara, hedabideok egonkortasun bat lortzeko aukera ikusi genuen eta bai lan baldintzak zein proiektu komunikatiboa berri eta egonkortzeko baliagarria izan zen.*

*Aurten deialdi berria egin da 2022-23-24 urteetarako eta, banatu beharreko diru-poltsa %5 igo bada ere, banaketa irizpide berriak egon dira eta honek desoreka handiak ekarri ditu. Konkretuki Noaua!k aurreko hiru urteekin alderatuta 61.781€ gutxiago jasoko ditu,%17,63 gutxiago. Hau da, bataz beste urtean 20.600€ gutxiago eta aurrekontu osoaren %8,47 gutxiago.*

*Bestalde, paperaren merkatuko prezioa ere asko igo da azken boladan. Urte hasieratik ari gara ikusten eta Antza inprimategiarekin urtearen lehen hilabeteetan prezioak eusten saiatu bagara ere, momentu honetan %12,3ko igoera bat daukagu.*



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

*Igoera aurrekontuetan aurreikusita bazegoen ere, prezioak aurreikuspenen gainera daude momentu honetan. Esandakoaren aurrean, egoera ekonomiko zailean aurkitzen da Noaua! Kultur Elkarte eta berehalako neurriak hartzen hasi gara. “*

*“...udalarekin ere harremanetan jartzen gara Herri Proiektu honi laguntzeko eskatuaz: 1- Datorren urteari begira hitzarmena berritzeko eskaera egin nahi dizuegu eta baldintza ekonomikoak berregokitu...”*

Dirulaguntzen Plan Estrategikoan 2023-2025 urteetarako 74.000 euroko aurreikuspena egin du Usurbilgo Udalak.

Orain arte aipatutako guztia kontuan izanda, 2020an sinatutako hitzarmena bertan behera utzi eta beste hiru urtetarako hitzarmen berria egitea proposatzen da.

Hitzarmen honen helburua Noaua! Kultur Elkartearekin dirulaguntza-erregimena eta prekarioz lagatuko dion lokalaren erabilpena arautzea da.

### **Kontuan harturik**

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak. (EAO 2017 azaroaren 9koa)
- 2/2016 legea, apirilaren 7koa, Toki Erakundeei buruzkoa.
- Administrazio Publikoetako Kontratuaren Erregelamendua (uztailaren 5eko 1098/2001 Dekretua)
- Apirilaren 2ko Toki Korporazioetako Oinarri arautzailearen 7/1985 zenbakidun Legea eta apirilaren 18ko erregimen lokaleko arauak biltzen dituen 781/1986 zenbakidun Testu Bateratua, beti ere Kontratu Legean ezarritakoaren aurka ez baldin badao.
- Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.
- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea.
- Herri Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea.
- Usurbilgo Udalaren 2023-2025 dirulaguntzen plan estrategikoa (GAO, 2023-02-01)
- Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza. (GAO, 2008-07-01)
- Usurbilgo Udalaren Euskararen Udal Ordenantza (1989-08-09)
- Usurbilgo Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana (2018-2022)
- 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa
- Usurbilgo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana
- Honetaz gain, zuzenbide administratiboko arauak eta bere kasuan zuzenbide pribatu arauak aplikatuko dira.

Udal ondasunaren (lokalaren) erabileraren doako lagapenari dagokionez, idazkariak txostena eman du, eta espedientean jaso da.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

Hori horrela, martxoaren 20an egindako Kultura, Euskara eta Gazteria Batzordean, gai hau bozketara eraman zen emaitza honekin:

Aldeko botoak: Luken Arkarazo, Oxkar Santamaria, Patxi Suárez.

Abstentzioa: Andoni Atxega:

Honenbestez, Kultura, Euskara eta Gazteria batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatarrak erabaki hauek hartu ditu:

## ERABAKIAK

**Lehenengoa:** Usurbilgo Udalak Noaua! Elkartearekin duen hitzarmena bertan behera uztea.

**Bigarrena:** Usurbilgo Udalak eta Noaua!-k izenpetuko duten hitzarmena onartzea, agiri honi eransten zaiolarik.

**Hirugarrena:** Hitzarmenaren iraupena hiru urtekoa izango da.

**Laugarrena:** Hitzarmen honen indarraldia, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean hasiko da.

**Bosgarrena:** Hitzarmenaren arabera, urtez urte, Usurbilgo Udalak Noaua!ri dirulaguntza hau emango dio:

2023an: 74.000 euro.

2024an: 74.000 euro.

2025ean: 74.000 euro.

**Seigarrena:** Usurbilgo Udalak urtero, aurrekontu partidan hitzarmen honi aurre egiteko adinako dirua jartzeko konpromisoa hartzen du.

**Zazpigarrena:** Hitzarmenaren berri interesatuari, udal-ondare arduradunari eta kontu-hartzaileari emango zaio.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, aho batez hartu da erabakia.

**13.- OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEAREKIN BAZKIDE LAGUNTZAILE GISA BAT EGITEA.**





Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

Beñat Larrañagak azalpenak eman ditu. Duela hiru urte “Oinherri, herri hezitzailea” egitasmoan sartzeko erabakia hartu zela esan du eta konpromiso hori urtez urte hitzarmen bitartez hartzen joan direla. Momentu honetan 35 udaletxe daudela esan du egitasmo honekin bat eginda eta bolumen hori haunditzen joan den neurrian udal horietako idazkariek ikusi dutela dio juridikoki ez zela formularik egokiena. Hori horrela, Oinherri bere izaera juridikoa aldatu egin duela adierazi du eta irabazi asmorik gabeko elkarte bat izatetik irabazi asmorik gabeko elkarte publiko komunitario izatera pasa direla.

Irizpenean dakartena da Oinherriren izaera aldaketaren harira, urtero egiten den 2.000 euroko ekarpena mantentzea, baina urtez urte hitzarmen batean oinarrituta izan beharrean Usurbilgo Udala elkarte horretako bazkide laguntzaile gisa atxikitzea. Udalak elkarteko batzarretan parte hartuko lukeela esan du baina gaur gaurkoz bozkarik gabe.

Idazkariak zehaztu du orain arte bezala dirulaguntza bidez egin beharrean, orain elkartearen eskaera jaso ondoren bazkide-tza kuota bat ordainduko dela, eta bazkide-tza kuota hau herriaren biztanle kopuruaren arabera izango dela.

Batzarkideek, Garapen eta Hezkuntza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp: HE.07/2023-0013

## AURREKARIAK

Udalbatzarrak, 2020ko otsailaren 27an egindako bilkuran, Usurbilgo herria “OinHerri, herri hezitzailea” egitasmoan sartzeari onespena eman zion.

Oinherri, herri hezitzailea egitasmoa, Usurbilgo Udalaren 2020/22ko diru-laguntzen plan estrategikoan onartu zen, eta Oinherriekin urtero egin den diru-laguntza hitzarmen baten bitartez gauzatu da.

Oinherri irabazi asmorik gabeko elkarteak, Usurbilgo Udalari bazkide laguntzaile modura bazkide-tzako gonbidapena luzatu dio.

## AZTERKETA

Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko Elkarte irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, 2012an sortu zena herri hezitzailearen filosofia Euskal Herrian sustatzeko. Euskal Herri hezitzaile bat lortzeko bokazioz 7 giltzarriren bueltan dihardute lanean ondorengo xede eta helburuekin:

Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen **haurren kultura** aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei benetan **parte hartzeko eta erabakitzeko** ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzailea eta **euskaldunaren** bitartez, **aniztasunean berdin eta parekide** izanez eta **ingurumen naturala** eta **ingurumen**



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

**kulturala** zainduz, **komunitate-sarea** eta **auzolana** indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.

Oinherri, Aisia, hezkuntza, kultura eta euskararen arloetan lan egiten duten Euskal Herriko 17 eragilek osatzen dute. Hiru lan-ildotan mamitzen da beraien lan jarduna: teoria eta praktikaren arteko giltzaduraz gogoeta egiten duten liburuxkak argitaratu eta formazioa eskaintza, jardunaldia zein mintegiak antolatzea eta Euskal Herriko hainbat herritan Oinherriko premisak aintzat hartuko dituzten proiektu hezitzaileak sustatzea.

Herri hezitzaileen sare bat ere osatu dute Oinherriren xedearekin bat egiten duten udalerrien artean. Usurbil, 2020az geroztik sare honetako partaide da eta egun 35 udalek osatzen dute Euskal Herri mailako herri hezitzaile sarea. Usurbilgo Udalak, sareko kide moduan, Oinherriko antolatzen diren foro, formazio, jardunaldi guztietara doako sarbidea dauka, eta topaketa hauetatik sortzen diren ezagutzak elkar banatzeko sortzen diren dibulgazio liburuxkak eskuratzen ditu.

2020, 2021 eta 2022ko hitzarmen honen baitan ondorengo hauek garatu dira Usurbilen:

2020ean sarea osatzen zuten herrien arteko saretze lana burutu zen, besteren artean hainbat ekimen burutuz, pandemia garaiaren bueltan. Bestetik hastapenetan herri hezitzaileen filosofia lantzeko aholkularitza eta bide laguntza eskaini zitzaion, honen harira, hainbat bilera burutu ziren Usurbilen, hain zuzen ere:

Oinherri eta herri hezitzaileen filosofiaren aurkezpen bilera, Usurbilgo herriaren diagnostikoaren lanketa, talde eragilearen osaketan laguntza eta herri hezitzaileen filosofiaren aurkezpena eta haur eta nerabeen parte hartzea formazioa.

2021ean, Euskal Herri mailako herri hezitzaileen sarea osatzen duten herrien artean identifikatutako beharretatik abiatuz, lau ildoren lanketarekin hasi ziren: Eskola kirola, herri antolamendua herri hezitzaileen ikuspegitik birpentsatzea, herri bat hezkuntzatik eraikitzen jardunaldia, nerabezeroaren kultura eta parte hartzea.

Beste alde, Usurbilen behar espezifikoaren inguruko honako bide laguntza eskaini zaio: Usurbilgo Oinherriko talde eragileari formazioa eta aholkularitza eta Usurbilgo Oinherriko lan taldearen aurkezpen ekitaldian bide laguntza.

2022an Usurbilgo Udalaren eta Oinherriren arteko lankidetzak bi planotan garatu da. Batetik, Usurbilen herri hezitzaileen filosofian sakontzeko sorturiko talde eragileari bide laguntza eta aholkularitza eskaini zaio, aurtengo urtean zehar landu nahi izan duten gaiaren inguruan. Haur filosofia izan denez Usurbilgo talde eragileak aukeratutako gaia, Oiertzungo esperientziarekin harremanetan jarri dituzte.

Bestetik, sare mailan landu diren bi lan ildotan parte hartze zuzena izan du Usurbilgo Udalak; eskola kirol foroan eta hirigintzako lan ildoan. Gainera UEMArekin elkarlanean, udako udalekuetan hezitzaile lanetan arituko zirenei, euskararen erabilera eta parte hartzearen inguruko formazioa eman zitzaion. Amaitzeko, Oinherri-k 2022an zehar argitaratu dituen hiru



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

dibulgazio liburuxka jaso ditu Usurbilgo Udalak, herrian interesa izan dezaketen eragileen artean partekatzeke.

Usurbilgo Udalak, guzti hau garatu izanagatik urtero 3.000 €ko diru-laguntza eman dio Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko elkarteari.

Esan behar da, 3 urte hautan lan lerro hauek garatu ahal izan direla Oinherriekin burututako diru-laguntza hitzartuari esker:

- Usurbilgo Udala Herri hezitzaileen sarean sartzea eta beste herrietako esperientziak partekatzea.
- Identifikatutako lan ildoan lanketarako foroak eta jardunaldiak eskaintzea
- Herri hezitzailearen filosofia eragileen artean zabaltzea
- Usurbilgo Oinherri talde eragileari baliabideak, aholkularitza eta prestakuntza eskaintzea
- Haur eta gazteen parte-hartzea landu nahi duten herriko eragileei prestakuntza.
- Usurbilen haurrentzat tertulia filosofikoak garatzea
- Esperientziak ezagutzera emateko liburuxkak eskuratzea, hain zuzen ere, hiru hauek
  - ✓ Herri antolamendua Herri Hezitzailearen ikuspegitik
  - ✓ Nerabezaroaren kultura eta parte hartzea
  - ✓ Eskola Kirola Gogoeta Kolektiborako tresna

Aurrera begira, urte hauetan garatu den lanketarekin eta lankidetzarekin jarraitzea komeni dela ondorioztatzen da.

Oinherri Usurbilgo Udalari, Herri hezitzaileen sareko parte diren beste Udalerriei bezala, Oinherri elkartearen bazkide laguntzaile modura bazkide izateko gonbidapena luzatu dio.

Aipatu gonbidapen idatzian Oinherri ondorioztatzen du diru-laguntza hitzartuak ez diola juridikoki erantzuten ibilbide honetan sortutako beharrari, hain zuzen ere, batetik, Elkarte bat eta Administrazio publikoaren artean sortutako espazioan aritzeari eta publiko komunitarioaren egiteko moduari, eta bestetik kontraprestazio baten truke egiteari.

Horregatik proposatzen du Oinherri, irabazi asmorik gabeko elkarte publiko komunitarioa bilakatzea, eta Udalak bazkide laguntzaile gisa atxikitzea, elkarte-kuota bat ordainuz, Usurbilgo Udalaren kasuan 2023ko urteko kuota hau 3.000 Eurotako izango litzatekeelarik.

### **KONTUAN HARTURIK**

- Udalbatzarrak 2020ko otsailaren 27an hartutako erabakia.
- Oinherri irabazi asmorik gabeko elkarteak, Usurbilgo Udalari bazkide laguntzaile modura bazkide izateko gonbidapen proposamena.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/03/30

Ikusirik Udal idazkariak, Udal Kontu hartzaileak eta Garapen eta Hezkuntza batzordeko teknikariak emandako aldeko txostenak, espedientean jasota geratzen direnak

Garapen eta Hezkuntza Batzordeak, 2023ko martxoaren 22an egindako bilkuran, Ainhoa Arrozpide, Beñat Larrañaga , Patxi Suárez-en aldeko botoekin eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, egindako irizpena kontuan hartuta Udalbatzarrak honako erabakiak hartu ditu:

## **ERABAKIAK**

**LEHENENGOA:** OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEAK egindako eskaera onartu eta bazkide laguntzaile gisa elkartearekin bat egitea.

**BIGARRENA:** Udalak urtero bazkide laguntzaileari dagokion ekarpena ordainduko du, Oinherri urtero egingo duen eskabidea jaso ondoren, dagokion partidaren kargura.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEA-ri jakinaraztea eta kontu hartzaileari berri ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, gehiengoz hartu da erabakia.

### **14.- GALDERA ETA ESKAERAK.**

Ez dago.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:25ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.**